

**2021eko APIRILAREN 29an UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO  
OSOKO BILKURAREN AKTA** **5 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2021eko apirilaren 29an, arratsaldeko zazpitan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

<b>Batzarburua</b>	Xabier Txurruka Fernandez jn.
<b>Zinegotziak</b>	Miren Letamendia Belloso and. (telematikoki) Jesus Arana Gomez jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Iban San Martin Hernandez jn. (telematikoki) Leire Arana Olabarrieta and. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. (telematikoki) Iker Basurko De Miguel jn. Koldo Uribarri Zenekorta jn. Itziar Murua Uria and. Ion Arozena Eizagirre jn. Mikel Goenaga Gubia jn. (telematikoki) Ainara Landa Argote and. (telematikoki) Begoña Olaizola Elordi and. (telematikoki) Xabier Etxaburu Elu jn. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. (telematikoki) Gloria Vazquez Herranz and. Patxi Elola Azpeitia jn. (telematikoki) Oihane Delgado Pita and.
<b>Bilkura hasita:</b>	Eider Illarramendi Azkue and.
<b>Ez da etorri</b>	Irune Urbietta Alberdi and.
<b>Idazkaria</b>	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.
<b>Kontu-hartzailea</b>	Karmele Lizaso Ubera and. (telematikoki)

Covid-19ak eragindako alarma egoera dela-eta, aipatutako zinegotziek bideokonferentzia bidez hartu dute parte.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udalbatzarrak.

## GAI-ZERRENDA

### **1.- ADIERAZPEN INSTITUZIONALA: Lesbianak ikusgai eta eskubidedun**

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210429&punto=1>

**Alkate** jaunak ADIERAZPEN INSTITUZIONAL bat irakurri du, Udalbatza osatzen duten taldeek adostua.

#### **Lesbianak ikusgai eta eskubidedun**

Apirilaren 26an, ikusgaitasun lesbikoaren egunean, oraindik ere zaila da ikusgaitasun hori aldarrikatzea pandemiaren testuinguru honetan. Oraindik ere beharrezkoa da argi eta garbi esatea lesbianak badaudela eta arrazoi asko dituztela lesbiana izateagatik harro egoteko, sareak eta beste plataforma batzuk aprobetxatuz ahotsa goratzeko.

Lesbianak oraindik ere ikusezinak dira gure gizarteko hainbat esparrutan; esaterako: eskolan, familian, lanean, kalean... Ezin ditugu ahaztu adineko lesbianak, lesbiana migratuak, asilo-eskatzaileak eta beste emakume lesbiana ezberdin asko.

Ikusezintasuna beste indarkeria mota bat da, emakumeei sexualitate askea eta autonomia ukatzen jarraitzen dien gizarte patriarkal honetan. Hainbeste emakume lesbiana ez-izatera edo ikusezintasunera kondenatzea sistemak baliatzen duen mekanismo bat besterik ez da, gizartean sexu- eta genero-aniztasuna ukatzen jarraitzeko.

Gizarte osoaren erantzukizuna da diskriminazio eta indarkeria guztien aurka borrokatzea. Beharrezkoa da lesbianen ikusgaitasuna sustatzen duten politika publikoak inplementatzen jarraitzea, eta, batez ere, nagusiki maskulinoa den LGTBI+ imajinariotik harago doazenak.

Egun honetan, lesbiana horiek guztiak gogoratu nahi ditugu, agerian daudenak eta ez daudenak. Horrenbestez, konpromisoa hartzen dugu lanean jarraitzeko eta gure gizartean baldintza egokiak sortzeko emakume lesbianek euren ikusgaitasuna nola bizi nahi duten askatasunez erabaki ahal izan dezaten. Era berean, pertsona, elkarte, kolektibo, erakunde eta organismo guztiei eta, oro har, gizarte osoari dei egin nahi diegu helburu horretan gurekin bat egiteko.

### **2.- 2021eko MARTXOAREN 25eko BILKURAREN AKTA ONARTZEA.**

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210429&punto=2>

Aho batez onartu dute, zuzenketarik gabe.

### **3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:**

– **2021eko martxoaren 18tik apirilaren 23ra.**

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210429&punto=3>

Segidan, Alkatetzak 2021eko martxoaren 18tik apirilaren 23ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

### **4.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:**

– **2021eko martxoaren 8tik apirilaren 19ra.**

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210429&punto=4>

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko martxoaren 8tik apirilaren 19ra hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

### **5.- INFORMAZIOA: FINANTZA ETA AURREKONTUEI BURUZ:**

– **2021eko 1. hiruhilekoa.**

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210429&punto=5>

Udalbatzak jakin berri du 2021eko lehenengo hiruhileko finantza eta aurrekontuei buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

### **6.- INFORMAZIOA: ORDAINKETAKO BATEZ BESTEKO EPEARI BURUZ:**

– **2021eko 1. hiruhilekoa.**

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210429&punto=6>

Halaber, Udalbatzari jakitera eman zaio 2021eko lehenengo hiruhileko ordainketako batez besteko epeari buruzko informazioa, alkate jaunak aurkeztu duena,

abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatutakoaren arabera.

**7.- 0564 DEKRETUAREN BERRI JAKITEA: 2020 aurrekontuaren likidazioa onartzea.**

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210429&punto=7>

Une honetan, **Eider Illarramendi Azkue** andrea bertaratu da bilkurara.

Udalbatzarrari jakinaren gainean jartzeko, hemen jasotako erabakia irakurri du idazkari andreak:

Alkatetzaren 0564 Dekretua, 2021eko martxoaren 23koa:

“Udal honen 2020ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontu-hartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau **ERABAKITZEN DUT**

**Lehen**a.- Udal honen 2020ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

**DIRUZAINZTA GERAKINA**

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2020-12-31n:		8.173.702,64
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2020-12-31n:		7.022.061,21
Aurrekontuko zordunak :	4.504.720,77	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	2.559.586,80	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	42.246,36	
3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2020-12-31n:		4.719.099,52
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	3.325.238,02	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	1.400.911,50	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	7.050,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2-3):		10.476.664,33
5.- Saldo kobragaitzak:		1.152.467,82
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		117.940,55
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		9.206.255,96

**AURREKONTUKO EMAITZA**

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:	1.601.387,85
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:	-149.095,21
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:	2.526.040,96

4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:	-117.940,55
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):	3.860.393,05

#### KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:	2.045.060,05
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:	7.691.534,35
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):	9.736.594,40

**Bigarrena.**- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

**Hirugarrena.**- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran."

### 8.- ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN ALDAKETA (TAO). BEHIN BETIKO ONESPENA.

Espedientea: 2013I1330001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210429&punto=8>

Akordio-zirriborroa irakurri ostean, proposamena eztabaidatu eta bozkatu dute. Bozketak emaitza hau izan du:

Botoak alde:	11	9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Botoak aurka	9	8 EH Bildu , 1 Podemos-Equo Berdeak
Abstentzioak:	-	

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

2021eko urtarrilaren 28an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak hasierako onespena eman zion ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN (TAO) aldaketari.

Espedientea jendaurrean egon den epean, alegazio/ohar hauek aurkeztu dira:

ALEGAZIOGILEA	DATA	SARRERA ZK.
Jone Martija Arruti	2021/03/01	2813
Jose M <sup>a</sup> Agirrezabalaga	2021/03/01	2814

Chiara Aguirre de la Hoz	2021/03/03	2996
Miren Koldobike Muniain Agote	2021/03/04	3094
Joritz Munian Iribar	2021/03/04	3095
Bartolome Iribar Sorazu	2021/03/04	3096
María Ostolaza Aguirrezabalaga	2021/03/04	3097
Mattin Munian Iribar	2021/03/08	3168
ELKARTU Federación Coordinadora	2021/03/09	3339
Axun Jauregi Gereka	2021/03/12	3579
EH Bildu udal taldea	2021/03/22	3881
Aintzane Ziarreta Erauzkin	2021/03/23	3908
Marina Goikoetxea Balenziaga	2021/03/23	3910
Pedro M <sup>o</sup> Silvan Urruzola / Jose Luis Campos Ecenarro	2021/03/23	3919/3920
Pablo Soroa Paguey	2021/03/25	4050
Santiago Buenetxea Agoues	2021/03/25	4062
Mikel Usobiaga Larrañaga eta beste batzuk	2021/03/25	4070
Asier Nieto Ibirriaga	2021/03/25	4077
Jose Antonio Lertxundi Zubeldia	2021/03/26	4121
Kontxi Arribas Lozano	2021/03/26	4126
Antton Gurrutxaga Hernaiz	2021/03/26	4152
Miriam Beitia Manterola	2021/03/26	4153
Olalla Ondarra Zubeldia	2021/03/26	4157
Iñigo Urtzelai Loinatz	2021/03/26	4166
M. Angeles Muniain Agote	2021/03/26	4180
Carles Fernández Marmol	2021/03/26	4188
Joan Mari Agirre Manterola	2021/03/26	4191
Industrialdea Araba	2021/03/29	4224
Martxelin Aizpurua Agirre	2021/03/29	4226
Blanca Kaltzakorta Aranburu	2021/03/31	4337

Aurkeztutako alegazioak aztertu ondoren, horiek ebazteko proposamena egin du Mugikortasuneko zinegotzi arduradunak, eta Herritarren arloko informazio-batzordeak bere irizpena eman du, apirilaren 22an egindako bileran.

Horrenbestez, aipatutako batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, gehiengoz,

## ERABAKI DU

**Lehenengoa**- Honako alegazio hauek partzialki onartzea:

ALEGAZIOGILEA	AKORDIOA
CHIARA AGUIRRE DE LA HOZ	- Nafarroa kaleko autobus geltokiaren erabilera egokia aztertuko da.
ELKARTU FEDERAZIOA	- Aldi bateko aparkalekuen kasuan zaila da irisgarritasuna hobetzeko aldaketak egitea lurra berak dituen ezaugarriengatik. Dena dela azertu egingo da.
MIKEL USOBIAGA LARRAÑAGA ETA BESTE BATZUK	- Momentu honetan Kortazarreko parkinga estrategikoa eta ezinbestekoa da herri honetarako. Bestalde, aurreikusita dago bi edo hiru urte barru egoitza berria egiteko obrak hastea, eta, ordura arte, erabiltzen jarraitzea. Dena dela, ahalik eta gutxien molestatzeko, parkingaren gainazala aldatzeko dauden aukera desberdinak aztertuko dira, besteak beste, "dena batean" produktua ibilgailuen errodaduretarako (Itxasmendin emandakoaren antzekoa). Horrela aparkalekuan sortzen den hautsa gutxitu egingo litzateke.
IÑIGO URTZELAI LOINATZ	- Ordenantzaren idazketan zenbait alderdi zuzendu dira.
INDUSTRIALDEA ARABA	- Egokitzen jotzen da, eta beharrezko neurriak hartuko dira eremu horretan errazago aparkatu ahal izateko.
MARTXELIN AIZPURUA AGIRRE	- Garaje-plazak ondo erabiltzeko neurriak aztertzen ari dira, horien erabilera okerrak ez dezan mugatu aparkatzeko tokia. - EUDELein eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lanean ari da seinaleztapen-irizpideak bateratzeko. - Badira 10. ordenantza fiskalaren aldaketari buruzko ohar batzuk beste espediente baten xede direnak, eta ez da aurreikusten proposatutako zentzuan tarifen aldaketa.

Aurreko alegazio-idatzietan planteatutako gainerako gaiei erantzun egingo zaie, arrazoibiderako akordio honi erantsitako txostenetan oinarrituta, eta akordioarekin batera jakinarazi egingo zaizkie interesatuei.

Bestalde, herritarrek behin eta berriz egindako eskaerari erantzunez, eta bide publikoan aparkaleku-plazak erreserbatzeko eman daitezkeen lizentziak ahalik eta gehien mugatzeko edo murrizteko xedez, atal berri bat erantsi zaio ordenantzaren 9. artikuluari, turismo-ostatuek, kasu batzuetan, dagozkien binetak lortzeko aukera izan

dezaten.

Era berean, 7. artikuluan paragrafo berri bat sartzen da, 1. zonako egoiliarrek beren eremurako edo 2. zonarako bereizgarria lortzeko aukera izan dezaten, eta 10 bis artikuluan beste bat, irabazi-asmorik gabeko hezkuntza-erakundea edo gizarte-interes argiko entitatea izanez gero langileei bereizgarriak emateko aukerari buruzkoa.

**Bigarrena.-** Ondoren aipatzen diren alegazioak ezestea, txosten bakoitzean adierazten diren arrazoiengatik; txosten horiek arrazoibiderako akordio honi erantsita, akordiorako batera jakinaraziko zaizkie interesdunei.

ALEGAZIOGILEA
JONE MARTIJA ARRUTI
JOSE M. AGUIRREZABALAGA
MIREN KOLDOBIKE MUNIAIN AGOTE
JORITZ MUNIAN IRIBAR
BARTOLOME IRIBAR SORAZU
MARIA OSTOLOZA AGUIRREZABALAGA
MATTIN MUNIAN IRIBAR
AXUN JAUREGI GEREKA
EH BILDU UDAL TALDEA
AINTZANE ZIARRETA ERAUZKIN 9
MARINA GOIKOETXEA BALENZIAGA
PEDRO M <sup>a</sup> SILVAN URRUZOLA / JOSE LUIS CAMPOS ECENARRO
PABLO SOROA PAGUEY
SANTIAGO BUENETXEA AGOUES
ASIER NIETO IBIRRIAGA
JOSE ANTONIO LERTXUNDI ZUBELDIA
KONTXI ARRIBAS LOZANO
ANTTON GURRUTXAGA HERNAIZ
MIRIAM BEITIA MANTEROLA
OLALLA ONDARRA ZUBELDIA
M. ANGELES MUNIAIN AGOTE
CARLES FERNÁNDEZ MÁRMOL
JOAN MARI AGIRRE MANTEROLA
BLANKA KALTZAKORTA ARANBURU

**Hirugarrena.-** Behin betiko onartzea ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN (TAO) aldaketa, adierazitako aldaketekin.



**Laugarrena.**- Ordenantzaren testu osoa Probintziako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, indarrean sar dadin; eta hori, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 70-2 artikuluan xedatutakoa betetzeko.

**ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA  
ARAUTZEKO ORDENANTZA. ~~2021EKO URTARRILEKO BERRIKUSPENA~~ 2021EKO APIRILEKO  
BERRIKUSPENA**

**1. artikulua. Xedea**

Ordenantza honen xedea trafikoa antolatzen eta hobetzen laguntzea da. Horretarako, leku eta denbora mugak ezarriko dira zerbitzu partikular edo publikorako erabiltzen den 3.500 kg arteko edozein ibilgailu bide publikoko leku edo zonetan eta bertan jarritako aparkalekuetan aparkatzeko.

Helburua da oreka handiagoa lortzea herriko hainbat zonatan aparkatzeko dagoen eskaintzaren eta eskariaren artean. Helburu hori lortzeko, Udalak bere kabuz edo zerbitzu hori emateko kontratatutako enpresen laguntzarekin bete ditzakeen mugatze, kontrol eta inbertsio jarduerak garatu dira.

**2. artikulua. Zonak eta seinaleak**

Araubide berezi honen xede diren zonak Ordenantza honetako planoetan jasota daude. Zona horiek behar bezala seinaleztatu dira, eta seinale bertikalak (ahal den lekuetan) eta horizontalak jarriko dira.

Udalbatzarrak ahalmena izango du zona arautuak eta horien izaera aldatzeko, baina alde aurretik zona horietako bizilagunen parte-hartzea bermatuko duen prozedura beteko du.

**3. artikulua. Ordainketa**

Araututako aparkaleku moduan behar bezala seinaleztatutako leku edo bide publikoan aparkatzen bada ibilgailua, ordaindu egin beharko da, erabiltzaileak hala eskatzen ez badu ere.

Aparkaldi arautuko gunean aparkatzeko, baimena eskuratu beharko da, horretarako jarritako sistema erabilia eta dagokion tasa ordaindu ondoren. Baimen horrekin batera aparkatzeko txartel bat (tiketa) emango da, edo ez.

**Aparkatzeko txartela (tiketa) ateratzea beharrezkoa den kasuetan, tiket hori ibilgailuaren haizetakoaren barruko aldean jarriko da, kanpotik erraz irakurtzeko moduan.**

Dagokion ordenantza fiskalean zehaztu eta eguneratuko dira tarifak.

**4. artikulua. Aparkamenduaren denboraldiak, indarreko ordutegiak eta **gehienezko denbora****

Bi denboraldi bereizten dira:

- a) Udaldia (ekainaren 1etik irailaren 30era, biak barne).
- b) Urteko gainerako egunak.

Zirkulazio-baimena Zarautzen duten ibilgailuek dohainik aparkatu ahalko dute araubide arrunteko zona guztietan, 13:00etatik 16:30era. Aparkamendua baimentzeko txartela behar bada, dagokion tiketa atera beharko da.

Udalerrri osoan egoiliarrentzat gordetako zonak indarrean egongo dira eguneko 24 ordutan eta asteko 7 egunetan.

Aparkaldi arautuak **ordutegi hauek** izango ditu:

**a) UDALDIA:**

Udaldian, astelehenetik igandera, 09:00etatik 20:00etara.

Igande eta jaiegunetan, aparkamendu arautuko zona normal bezala arautuko dira errotazio handiko zonak, ondorio guztietarako, ~~eta ez errotazio handiko zona bezala.~~

#### **b) URTEKO GAINERAKO EGUNAK:**

Urteko gainerako egunetan, hauek egongo dira indarrean udalerrri osoan: errotazio handiko zonak, egoiliarrentzat gordetako zonak eta 1 zonako aparkamendu arautuko gunen normalak.

Honakoa izango da **errotazio handiko guneeetako eta araubide arrunteko zonetako** ordutegia: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 20:00etara, eta larunbatetan 09:00etatik 13:00etara.

Denboraldien hasiera eta bukaerako egunak eta zonen ordutegiak aldatu ahal izango dira, ezohiko izaeraz, zerbitzu teknikoek hala proposatuta, **Alkatetzak edo, hala badagokio, delegazio edo deskontzentrazio bidez ari den organoak emandako ebazpen arrazoituaren bidez.**

**Errotazio handiko guneeetan aparkatzeko gehieneko denbora 90 minutukoa izango da, ibilgailu guztientzat.**

### **5. artikulua. Salbuespenak**

Ondorengo ibilgailuek ez dituzte ordainduko ordenantza honetan araututako tasak, adierazitako bide edo zonetan aparkatzeagatik:

- a) Motozikletak, ziklomotorrak eta bizikletak, baldin eta araututako aparkamendurako adierazitako plazak okupatzen ez badituzte eta horrelakoak aparkatzeko egokitutako lekuetan baldin badaude.
- b) Beren kategoriarako edo jarduerarako gordetako zonetan aparkatzeko udal baimena duten ibilgailuak.
- c) Zama lanak egiteko jarritako leku eta orduetan horrelako lanak egiten ari diren merkataritzako ibilgailuak.
- d) Autotaxi ibilgailuak, gidaria bertan eta zerbitzuan dagoenean.
- e) Hiletetako ibilgailuak, zerbitzuan daudenean.
- f) Larrialdietako ibilgailuak: anbulantziak, su-hiltzaileak, Gurutze Gorria, DYA eta polizia; horiek guztiak zerbitzuan daudenean.
- g) Barruan gidaria edo bidaiariren bat duen ibilgailu automobila, aparkaldia bost minutu baino gutxiagokoa denean.
- h) Mugikortasun urriko pertsonen jabetzako ibilgailuak edo bereziki egokitutakoak, zirkulazio baimena dutenak eta beren titularrek erabiltzen dituztenean, baldin horrelakoak aparkatzeko lekuetan aparkatuta badaude.
- i) Horretarako bereizgarria indarrean duten ibilgailuak.
- j) Zerbitzu publikoei atxikitako ibilgailuak, behar bezala errotulatu eta identifikatuak, benetan zerbitzuan daudenean.
- k) **Zirkulazio-zerga Zarautzen ordaintzen duten ibilgailuek dohainik izango dute aparkaldiaren lehen ordu erdia araubide arrunteko zonetan edo zona urdinetan. Jarritako sistemak hala eskatzen badu, dagokion txartela atera beharko da (tiketa).**

### **6. artikulua. Araubide bereziko aparkalekuak**

Zerbitzua arautzeko, aparkaleku-araubide bereziko ondorengo zonak jarri dira, eta honakoen arabera arautuko dira:

1.- Egoiliarrentzat gordetako zonak:

Dagokion zonan bizi diren pertsonen ibilgailuak soilik aparkatzeko izango dira horrela seinaleztatutako gunek, betiere, 7, 8, 9, 10, 11 edo 12. artikuluetan araututako aparkaleku-bereizgarriren bat baldin badute.

**1 zonako bereizgarria duten ibilgailuek Salberdin izenarekin ezagutzen den aparkalekuan aparkatu ahaliko dute, azken zona horretan bizi direnen eskubide berdinekin.**

~~6 zonako bereizgarria duten ibilgailuek 5 zonan ere aparkatu ahalko dute, azken zona horretan bizi direnen eskubide berdinekin.~~

~~Egoiliar txartela duen ibilgailu orok beste edozein gunetan egoiliarrentzat gordetako zonetan aparkatu ahalko du, gehienez ordubetez eguneko, eta urteko edozein garaitan. Baimendutako denbora ezingo da, inolaz ere, luzatu edo zatiu.~~

~~Jartzen den sistemak hala eskatzen badu, dagokion txartela atera beharko da.~~

~~1 zonako bereizgarria duten ibilgailuak 2 zonan aparkatu ahalko dira, azken zona horretako bizilagunen eskubide bereberekin.~~

## 2.- Errotazio handiko zonak:

Aparkaldia gehienez 90 minutukoa izango da ibilgailu guztientzat. Denbora hori igaro ondoren 16. artikuluan aurreikusitako neurriak aplikatuko dira.

Ibilgailu guztiak bete beharko dituzte zona horietan aparkatzeko denbora-mugak eta ordaintzeko betebeharra, bai eta ordenantza honetan aurreikusitako bereizgarriren bat duten ibilgailuek ere.

Araubide Bereziko Aparkalekuen kokapen zehatza, ezohiko izaeraz, **Alkatetzak edo, hala badagokio, delegazio edo deskontzentrazio bidez ari den organoak emandako erabaki arrazoituaren bidez jarriko da, zerbitzu teknikoek hala proposatuta.**

## 3.- Autokarabanak aparkatzeko zona:

Urte osoan funtzionatuko du. Ibilgailu horiek gehienez ere ~~2 egunetan~~ **3 egunetan aparkatu ahalko dira udaldian eta 5 egunetan urteko gainerako egunetan.** Denbora hori igaro ondoren ibilgailua mugitu egin beharko da. Ez da aparkatzeko baimen berririk emango, aurreko baimena bukatu eta ~~7~~ **5 egun** pasatu arte.

**Zona horren kokapena aldatu daiteke edo zona bera aldatu, handitu edo txikitu daiteke, Alkatetzak edo, hala badagokio, delegazio edo deskontzentrazio bidez ari den organoak emandako ebazpen arrazoituaren bidez.**

## 4.- Aldi bateko edo behin-behineko aparkalekuak.

**Zirkunstantziak hala eskatzen duenean eta behar edo egoera bereziei aurre egiteko, aldi bateko edo behin-behineko aparkalekuak gaitu ahalko dira, zerbitzu teknikoek hala proposatuta eta Alkatetzak edo, hala badagokio, delegazio edo deskontzentrazio bidez ari den organoak emandako ebazpen arrazoituaren bidez.**

Ibilgailuak gunen horietan aparkatu ahalko dira, aurretik dagokion ordenantza fiskalean aurreikusitako tasa ordainduta. **Aparkatzeko txartela (tiketa) lortzea beharrezkoa izan daiteke, edo ez.**

## 7. artikulua. Egoiliarren bereizgarria

Oro har, etxebizitza bakoitzeko gehienez hiru egoiliar-txartel eman ahal izango dira. Hala ere, Udalak egoiliarrentzako aparteko bereizgarriak eman ditzake, mugikortasun urriagatik edo salbuespenezko beste arrazoi batengatik.

Egoiliarrentzako bereizgarria emateak dagokion Ordenantza Fiskalean jarritako tasa sorraraziko du.

Zarauzko Udalak egoiliar bereizgarriak emango dizkie honako baldintzak betetzen dituzten ibilgailuei:

- Ibilgailuaren titularra Zarautzen erroldatutako pertsona fisikoa izatea eta dagokion zonan inskribatutako etxean bizitzea.
- Probintziako Trafiko Buruzagitzak emandako zirkulazioko baimenean agertzen den pertsona hartuko da ibilgailuaren jabetzat.
- Ibilgailua Zarauzko Ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Zergaren erroldan alta emanda egotea eta aurreko ataletan adierazitako titulartasuna eta helbidea bat etortzea. Gainera zerga hori ordainduta eduki beharko da.
- Udalak jarritako trafiko isunik izanez gero, hori ordainduta izatea. Arau hau etxebizitza bereko ibilgailuei aplikatuko zaie, baldin horren titulartasun-aldaketarik gertatu ez bada.

- e) Dagokion Ordenantza Fiskalean egoiliarrentzako bereizgarria lortzeko jarritako tarifa ordaintzea.

## 1. zonako egoiliarrek aukera izango dute beren zonako edo 2. zonako bereizgarria lortzeko

### 8. Egoiliarren aparteko bereizgarria

Egoiliarren aparteko bereizgarria lortu ahal izango dute ohiko bizilekua Zarautzen izanik, bertan erroldatuta egon eta ibilgailua errentamendu finantzarioan (leasing edo renting) duten pertsona fisikoek. Hori lortzeko, ondorengo baldintza guztiak ezinbestez bete beharko dira:

- a) Gidabaimena indarrean izatea.
- b) Ohiko helbidea Udal Erroldan eta gidabaimenean azaltzen den bera izatea, eta, benetan, dagokion zonaren barruan (~~eta 1 zonaren barruan, dagokion sektorean~~) inskribatutako etxebizitzan bizitzea.
- c) Ibilgailuaren pisua gehienez 3.500 kg-koa izatea.
- d) Ibilgailuaren aseguruan ohiko gidari bezala azaltzea.
- e) Udalak jarritako trafiko-isunak ordainduta izatea, halakorik edukiko balu. Arau hau etxebizitza bereko ibilgailuei aplikatuko zaie.
- f) Dagokion Ordenantza Fiskalean bertakoentzako bereizgarria lortzeko jarritako tarifa ordaintzea.
- g) Leasing edo renting-aren kontratu originala eta ibilgailuaren aseguru-poliza aurkeztu beharko dira, baita agiri horien fotokopiak ere.

Talde horretan egongo dira enpresaren ibilgailua euren zerbitzura duten gidariak. Kasu horretan g) letrako betebeharraren orde zehazkia aurkeztuko da: eskatzailearen eta ibilgailuaren enpresa titularraren arteko lan-harremana frogatzeko agiria. Justifikatu beharko da enpresak baimena eman diola pertsona horri ibilgailua berak eskusiboki erabiltzeko, bai lanorduetan bai lanorduetatik kanpo.

### 9. artikulua. Jarduera ekonomikoekin lotutako ibilgailuen aparteko bereizgarria

Jarduera ekonomikoekin lotutako ibilgailuei aparteko bereizgarria eman ahal izango zaie ondoko baldintzak betetzen dituen eta dagokion zonan dagoen entitate juridiko edo fisikoari:

- a) Ibilgailuaren titularra pertsona juridiko edo fisikoa izatea eta jardueraren helbidea araututako zonan ~~eta sektorean~~ egotea. Gainera enpresa edo jarduera horrek jardueraren aurrekomunikazioa eginda eduki behar du Udalean, edo establezimendua irekitzeko lizentzia eduki behar du, edo jarduera legeztatze prozesuan dagoela justifikatu behar du.

Epigrafe honetan sartzen dira, baita ere, Zarauzko Udal Merkatuko salmenta-postu ez finkoetako adjudikaziodunak.

- b) Ibilgailua Zarauzko Ibilgailuen Zirkulazioaren gaineko Zergaren erroldan alta emanda egotea eta aurreko ataletan adierazitako titulartasuna eta helbidea bat etortzea. Gainera zerga hori ordainduta eduki beharko da.

Probintziako Trafiko Buruzagitzak emandako zirkulazioko baimenean agertzen den pertsona hartuko da ibilgailuaren jabetzat. Zarauzko Udal Merkatuko salmenta-postu ez finkoetako adjudikaziodunek ez dute baldintza hau bete beharrik izango.

- c) Bere jardueraren izaera berezia dela-eta, ibilgailua etengabe erabili behar izatea. Ibilgailuaren beharra justifikatu egin beharko da. Udalaren irizpidearen mende egongo da aparteko bereizgarria emateko erabakia.

Behar bezala erregistratutako profesional taldeek (gremioek), aparteko kasuetan, euren jarduerarako ibilgailuaren beharra badute, bereizgarri honek eskubidea emango die araututako zona guztietan aparkatzeko, euren helbide sozialaren kokapen-guneaz gain. Eskubidea emango die, baita ere, egoiliarrentzako araubide bereziko zonetan aparkatzeko, ~~19:00ak~~ 20:00ak arte.

Aparteko kasuetarako bereizgarriak, ordea, ez du eskubiderik ematen jaiegun eta larunbatetan eguerdiko 13:00etatik aurrera euren zonatik kanpo aparkatzeko. Salbuespenezko kasuetan soilik eman ahalgo du organo eskudunak ordutegi horretatik kanpo aparkatzeko baimena.

- d) Udalak jarritako trafiko isunik izanez gero, horiek ordainduta izatea. Arau hau entitate juridiko edo fisiko bereko ibilgailuei aplikatuko zaie.
- e) Jarduera ekonomikoentzako aparteko bereizgarria lortzeko, dagokion Ordenantza Fiskalean jarritako tarifa ordaintzea.

**Turismo-ostatuak ere eskatu ahal izango dute bereizgarri hori, baldin eta espazio publikoan aparkaleku-plazarik erreserbatuta ez badute eta ordenantza honek araututako eremuan badaude. Bereizgarri horiek matrikula espezifikorik gabe erabili ahalko dira, eta noizbehinkako bezeroek errazago eta denbora jakin baterako aparkatzeko erabiliko dira. Bereizgarria ostatuaren jarduera kokatzen den eremuan bakarrik erabiliko da, betiere, errotazio handiko eremuetan izan ezik**

Jarduera bakoitzeko gehienez hiru bereizgarri eman ahalko dira. Salbuespenezko kasuetan, hiru bereizgarri baino gehiago eman ahalko dira. Kasu horiek bereziki aztertu eta erabakiko ditu baimendutako kudeaketa-organoak.

Zarauzko Udal Merkatuko salmenta-postu ez finkoetako adjudikaziodunen kasuan, bereizgarri bakarra emango da salmenta-postu bakoitzeko.

#### **10. artikulua. Etxebizitzen jabe edo errentari direnen bereizgarria**

Herrira etortzen diren pertsonen euren etxebizitza (jabetzakoa edo alokatua) aparkaleku-zerbitzu arautua duen ingururen batean badute, zona arautuan aparkatzeko baimena emango dien bereizgarria lortu ahal izango dute, tiketa erosi beharrik gabe eta aparkatzeko denbora mugarik gabe.

Bereizgarri hori une horretan indarrean dauden ordenantza fiskalen arabera baimenduta dagoen ibilgailu kopururako izango da. Bereizgarri hori emateko, 15 egun baino gehiago pasatu behar dira herrian.

Bereizgarri hori lortu nahi duten pertsonen ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Araututako zonaren mugapean inskribatuta dagoen etxebizitza baten jabe edo errentari izatea.
- b) Ibilgailuaren jabe izatea. Probintziako Trafiko Buruzagitzak emandako zirkulazioko baimenean agertzen den pertsona hartuko da ibilgailuaren jabetzat.  
  
Bestalde, ibilgailuaren jabe izan gabe ere lor daiteke, baldin eskatzailea udako bereizgarria behar duen ibilgailuaren aseguruaren hartzailea bada.
- c) Udalak jarritako trafiko isunik izanez gero, horiek ordainduta izatea.
- d) Dagokion Ordenantza Fiskalean jarritako tarifa ordaintzea.

Ez zaie artikulu honetan aurreikusitako bereizgarria emango, TAO zonan aparkatzeko baimena duten ibilgailuen titularrekin batera herriko etxebizitzetan udaldia pasatzen duten pertsonen, salbuespen batekin: eskatzailea eta etxebizitzaren jabe eta erroldatua(k) odoleko ahaideak izatea. Aldez aurretik ahaidetasun hori frogatu egingo da. Edonola ere, ahaidetasuna, gehienez, bigarren mailakoa izango da.

Eskaera, etxebizitzaren jabeak egin beharko du.

#### **10 bis artikulua. Egoiliar ez diren langile eta autonomoen aparteko bereizgarria**

Herrian erroldatuta ez daudenek baina bertan lan egiten dutenek aukera izango dute uda partean aparkatzeko bereizgarria eskatzeko.

Hilabeterokoa izango da, eta ezingo da zatitu.

Bereizgarriak **arabide arrunteko zonan aparkatzeko balioko du (zona urdinean).** ~~eskatzaileak zehaztuko du lekua.~~

1 zonan lan egiten duten eskatzaileek **2 zonako arabide arrunteko zonan aparkatu ahalko dute (zona urdina).** ~~Herriko soro kalean eta Salberdinen bakarrik izango dute aparkatzeko aukera.~~

Bereizgarria indarrean egongo da langilearen kontratuak dirauen bitartean, astelehenetik ostiralera edo astelehenetik igandera, kontratu horren baldintzen arabera.

Bereizgarria eskuratu nahi duten pertsonak ondorengo baldintzak bete beharko dituzte:

- a) Indarrean duten lan kontratua aurkeztea. Autonomoen kasuan, berriz, Zarautzen Jarduera Ekonomikoen Gaineko Zergan alta emanda izatea eta zehaztutako zonaren barruan jarduera burutzeko lokal edo etxe bat alokatuta edo jabetzan izatea.
- b) Ibilgailuaren jabea izatea. Probintziako Trafiko Buruzagitzak emandako zirkulazioko baimenean agertzen den pertsona hartuko da ibilgailuaren jabetzat.
- c) Udalak jarritako trafiko isunik izanez gero, horiek ordainduta izatea.
- d) Dagokion Ordenantza Fiskalean bereizgarria lortzeko jarritako tarifa ordaintzea.
- e) Eskaera urtero berritu beharko da.

Irabazi-asmorik gabeko hezkuntza-entitatea edo gizarte-interes argiko entitatea bada, Udalak hango langileentzako bereizgarriak baloratu eta, hala badagokio, eman ahal izango ditu, betiere, 2 zonako egoiliarrentzako gunean erabiltzeko eta ordutegi mugatuan, egoiliarrek aparkaleku horiek erabiltzeko duten eskubideari ahalik eta gutxien eraginez.

#### **11. artikulua. Arautu gabeko zonetako egoiliarren eta inguruko udalerrietako egoiliarren bereizgarria**

- a) Zarautzen erroldatutako pertsonak izanik, ordenantza honek arautzen dituen aparkaleku-zonen mugetatik kanpo bizi direnek ere aparkatzeko bereizgarria eskuratu ahaliko dute. Bereizgarri horrek baimena emango die araututako zona batean aparkatu ahal izateko, tiketa lortu gabe eta denbora mugarik gabe.

Bereizgarria gehienez bi ibilgailurentzat izango da, eta **2 zonarako bakarrik**. [Eskatzaileak zehaztutako du zein zona aukeratzeko duen, 1 eta 6 zonak izan ezik.](#)

Bereizgarria eskuratu nahi duten pertsonak 7 edo 8 artikuluetan adierazitako baldintzak bete beharko dituzte, honako hau izan ezik: ordenantza honek arautzen duen zona berean egoiliar izateari buruzkoa.

- b) Aiako Laurgain, Elkano eta Urdaneta auzoetan eta Getariako eta Zumaiako Meaga auzoan, II. eranskinean zehaztutako katastro-partzeletan erroldatutako pertsonak.

Bereizgarriak ibilgailu bakarrarentzat balioko du eta **4-zonarako 2 zonarako**.

Bereizgarria eskuratu nahi duten pertsonak baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) II. eranskinean zehaztutako katastro-partzeletakoren batean erroldatuta egotea.
- b) Ibilgailuaren jabe izatea. Probintziako Trafiko Buruzagitzak emandako zirkulazioko baimenean agertzen den pertsona hartuko da ibilgailuaren jabetzat.
- c) Udalak jarritako trafiko isunik izanez gero, horiek ordainduta izatea.
- d) Dagokion Ordenantza Fiskalean bereizgarria lortzeko jarritako tarifa ordaintzea.
- e) Eskaera urtero berritu beharko da.

#### **11 bis artikulua. Tiket bereziak**

Udaldian eguneko edo frakzioko tiketak edo tiket bereziak lortu ahaliko dira, honako kasu hauetan:

- a) Bizitoki publikoaren erabilera duten establezimenduek, aldi baterako ostatua emateko direnak (hotelak, hostalak, egoitzak, pentsioak, apartamentu turistikoak, etab.), eguneko tiketak lortu ahaliko dituzte, araubide arrunteko zonetan aparkatzeko.

Tiket horrekin aukera izango dute establezimendua dagoen zonaren barruan egun osoz aparkatzeko. Establezimenduko bezeroek soilik erabili ahaliko dute tiket hori. Tiketak behin erabiltzeko izango dira, eta tiket hori lortzeko, erabiltzaileak kode bat sartu beharko du parkimetroan.

- b) Etxebizitza bakoitzeko eguneko edo 4 orduko kode edo tiket kopuru jakin bat lortu ahalko da. Tiket horrek aukera emango du etxebizitza dagoen zonako araubide arrunteko zonetan aparkatzeko. Tiketak behin erabiltzeko izango dira, eta tiket hori lortzeko, erabiltzaileak kode bat sartu beharko du parkimetroan.
- c) Aldi baterako ostatua emateko ez diren merkataritzako establezimenduek ere kode batzuk lortu ahalko dituzte, aparkamendu arautuaren zerbitzua kudeatzen duen enpresaren bulegoetan. Kode horien bidez, dohainik aparkatzeko denbora ematen duen tiketa atera dezakete erabiltzaileak.

Tiket hori soilik establezimenduko bezeroek erabili ahalko dute. Tiketak behin erabiltzekoak izango dira, eta erabiltzaileak egiten duen hurrengo aparkamenduan erabili ahalko du. Tiketa lortzeko, erabiltzaileak kode bat sartu beharko du parkimetroan. ~~TAO araubideko edozein zonatan~~ Araubide arrunteko zonetan eta errotazio handiko zonetan erabili ahalko da, bi ordutik gorako tiketak izan ezik, horiek ezingo baitira errotazio handiko zonetan erabili.

Kasu guztietan, baimen edo kode horiek aparkamendu arautuaren zerbitzua kudeatzen duen enpresaren bulegoetan lor daitezke, **edo enpresa kudeatzaileak jarritako e-mail edo beste bitarteko baten bidez eskatu ahal izango dira**. Baimen horiek lortzeko, eskatzaileak frogatu beharko du jarduera egiteko behar diren betebeharrak administratiboak betetzen dituela (irekitzeko lizentzia, aurrekomunikazioa edo horretarako gaitzen duen beste edozein titulu), edo Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kopia aurkeztuko du.

~~Arautu gabeko guneetan dauden establezimenduek ezingo dute eguneko tiket hori lortu.~~

## 12. artikulua. Mugikortasun urriko pertsonen gidatutako ibilgailuen bereizgarria

Ezintasunak dituzten pertsonentzako Aparkaleku Txartelarekin identifikatuta dauden ibilgailuek bakarrik aparkatu ahal izango dute mugikortasun urriko pertsonentzako gordetako aparkalekuetan.

Plaza horiek bertikalki eta horizontalki seinaleztatuko dira, modu egokian.

Plaza horietan aparkatzeko gehienezko denbora-muga 24 ordukoa izango da. Denbora hori amaitutakoan, ibilgailua beste aparkaleku batera mugitu beharko da. Ezingo da aparkaleku erreserbatu berean aparkatu azken aparkalditik 12 ordu pasatu arte.

Honako aparteko araubidea aplikatuko zaie Ezintasunak dituzten pertsonentzako Aparkaleku Txartela indarrean daukaten eta ibilgailuaren titularra Zarauzko udal mugapean erroldatuta duten pertsonen gidatzen dituzten ibilgailuei:

- a) Ordenantza honetako 7. artikuluko a), b) eta c) ataletan jasotako baldintzak bete beharko dituzte, edo, bestela, 8. artikuluan jarritakoak.
- b) Mugikortasun urriko pertsonentzako bereizgarria eskuratu ahal izango dute, eta ibilgailuaren aurreko haizetakoaren barruko aldean itsatsi beharko dute, kanpotik ondo irakurtzeko moduan.
- c) Bereizgarri horren titularrek aparkaldi arautuko ~~zertzi~~ edozein **zonatan** aparkatu ahalko dute – mugikortasun urriko pertsonentzako gorde gabeko plazak – egoiliarrentzat jarritako baldintza berdinetan. Errotazio handiko eremuetan ez da eskubide hori aplikatuko.

## 13. artikulua. Bereizgarria eskatzea

Ordenantza honetan definitutako bereizgarriak lortu nahi dituztenek egiaztatu beharko dute eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, eta agiri hauek aurkeztuko dituzte:

- 1) Udalak horretarako jarritako eskaera-inprimakia.
- 2) NANaren fotokopia edo nortasuna egiaztatzeko beste edozein agiri. Pertsona juridikoa denean Identifikazio Fiskaleko Kodea.
- 3) Ibilgailuaren zirkulazioko baimenaren fotokopia.
- 4) Dagokion Ordenantza Fiskalean jarritako tarifaren diru-sarrera egin izanaren ziurtagiria.
- 5) Etxebizitzen jabe edo errentarientzako bereizgarria lortzeko: herri-kontribuzioaren ordainagiria edo behar bezala baimendutako alokairuaren kontratua (Foru Ogasunak ikus-onetsia).
- 6) Jarduera ekonomikoetarako bereizgarria lortzeko: titularrak justifikatu beharko du bere jarduera ekonomikorako etengabe erabili behar duela ibilgailua.

- 7) Enpresaren ibilgailua euren zerbitzura duten gidariek egiaztatu beharko dute, batetik, ibilgailuaren enpresa titularren eta eskatzailearen artean laneko harremana dagoela, eta bestetik, enpresak baimena eman diola pertsona horri ibilgailua berak eskusiboki erabiltzeko, bai lanorduetan bai lanorduetatik kanpo.
- 8) Mugikortasun urriko ibilgailuen titularrek, berriz, agiri bidez frogatu beharko dute zirkunstantzia hori.
- 9) Garajea araututako zonaren batean jabetzan edo errentan daukaten egoiliarrek ez badute bereizgarrikerik eskatzen, TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALEAN jarritako hobaria izango dute, halakorik balego. Hobaria eskatu egin beharko da, eta agiri bidez frogatu.

Agiri horiek jatorrizkoekin batera aurkeztuko dira alderatu ahal izateko. Hala ere, Udalak eskubidea izango du beste edozein agiri eskatzeko eta, gainera, ekarritako datuen zintzotasuna egiaztatzeko beharrezko frogak eta ikerketak ofizios egiteko.

- a) Egoiliarrentzako bereizgarria eskatu duenaren benetako eta ohiko bizilekua zein den frogatzea, egoiliarrentzako bereizgarria eskatu duenaren etxebizitzan bertan. Nahitaezkoa eta ezinbestekoa da titulartasuna eta helbidea ibilgailuen udal erroldan inskribatutakoekin bat etortzea.
- b) Ibilgailua ZARAUZKO UDALERRIKO IBILGAILUEN ZIRKULAZIO-ZERGAREN ERROLDAN alta emanda dagoela eta zerga hori ordainduta duela frogatzea.
- c) Legez jarritako epeetan Udalarari ordaindu gabeko trafikoko isunak ez daukala frogatzea.

Ordenantza indarrean sartzen denean, bereizgarria eskuratu nahi duten interesdun guztiek beharrezko dokumentazioa aurkeztu beharko dute, eta dagokion ordenantza fiskalean jarritako tasak ordaindu beharko dituzte.

Bereizgarrien erabilerari eta indarraldiari buruz 14. artikuluan jarritako xedapenei utzi gabe, interesdunek lau urtetik behin kudeaketa-organoari behar diren agiriak aurkeztuko dizkiote, haren aurrean justifikatzeko bereizgarria lortu eta erabiltzeko baldintzak betetzen jarraitzen dutela. Hala eta guztiz ere, erabiltzaileari edozein unetan eskatu ahal izango zaio baldintza horietan egunean dagoela berresteko.

#### **14. artikulua. Bereizgarriaren erabilera eta indarraldia**

Ordenantza honetan definitutako bereizgarrien onuradunek beren zonako toki libreetan denbora mugarik gabe aparkatu ahal izango dute, ~~errotazio handiko zonetan bisitariarentzat gordetako zonetan~~ izan ezik.

Hala eta guztiz ere, egoiliarren ibilgailua espazio berean jarraian aparkatuta edukitzeko gehieneko denbora 8 astekoa izango da, ezinbesteko arrazoiengatik baimen berezia eskuratu ezean, behintzat. **Baimen hori Alkatetzak edo, hala badagokio, delegazio edo deskontzentrazio bidez ari den organoak emango du, ebazpen arrazoitu baten bidez.** Zortzi aste horiek igarota, ibilgailua beste aparkaleku batera aldatu beharko da. Ezin izango da berriro leku berean aparkatu, azken aldiz bertan aparkatu zenetik 24 ordu igaro arte.

Bereizgarria ibilgailuaren haizetakoaren barrualdean jarri beharko da, kanpotik ondo ikusteko moduan. Bereizgarria baliagarria izango da zerbitzu publikoa indarrean izango den urtealdirako edo, udaldirako emandako bereizgarrien kasuan, zehaztutako eperako. Bereizgarri hori eskatzailearentzat eta eskatutako ibilgailurako bakar-bakarrik izango da.

Bereizgarria jaso duten eskatzaileak izango dira horien erantzule, eta etxebizitza edo ibilgailua edo bereizgarria eduki ahal izateko edozein baldintza aldatzen dutenean, Udalarari jakinarazi beharko diote gehieneko astebeteko epean. Hala, beste bereizgarri bat emango zaie, horretarako eskubiderik izanez gero edo, bestela, lehendik zutena baliogabetuko zaie. Bi kasuetan bereizgarria itzuli egin beharko dute.

Bereizgarria lapurtu edo galtzen bada Udalarari lehenbailehen jakinaraziko zaio.

Bereizgarria indarrean izango da, ekitaldi fiskalaren barruan bereizgarriari eman zaion denboraldian. Epealdi hori amaituta, ez du baliorik izango. Hala ere, Udalak, dagozkion egiaztapenak egin eta gero, ofizios automatikoki berrituko du.

Titularrak bereizgarria berritu nahi ez badu, kudeaketa-organoari jakinarazi beharko dio denboraldi berria (udakoa edo urtekoa) hasi baino lehen, eta bereizgarria dagokion bulegora eramanez beharko du.

Bereizgarria ekartzen ez bada, titularrak bidegabe erabiltzen ari dela ulertuko da, eta ordenantza honetako 16 d) artikuluan araberako ondorioak izango ditu jokabide horrek.



## 15. artikulua. Betebeharrak

Bide publiko eta aparkalekuetan aparkatzeko, ordenantza honetako 2. artikuluan adierazitako arau orokor eta zehatz guztiak beteko dira, ibilgailuak aparkatzeko seinale guztiak errespetatutako dira, eta, gainera, ondorengo edozein agiri lortuko da:

- a) Oro har, dagokion tasa ordaindu ondoren, aparkatzeko txartel bat emango da, edo ez.
- b) Ibilgailuaren aurreko kristalaren barnealdean jarri beharko da txartela, kanpotik erraz irakurri ahal izateko moduan.
- c) Mugikortasun urriko pertsonentzako aparkatzeko bereizgarria (MM biñeta), ibilgailuaren aurreko haizetakoaren barrualdean itsatsi beharko dena, kanpotik erraz irakurtzeko lekuan.

## 16. artikulua. Zigor-arabidea

1. Norbaitek ordenantza honen edozein artikulua edo Alkatetzak ordenantzaren garapen gisa ematen dituen xedapenak urratzen baditu, hori trafiko eta zirkulazioko arau-haustetzat hartuko da, eta, ondorioz, zigorrak jarriko dira, legezko prozeduraren bidez.
2. Ibilgailuaren titularrak, hala eskatzen bazaio, arau-haustea egin duen gidari erantzulea zein den identifikatu behar du, eta dagokion prozedurazko tramitean obligazio hori justifikaziorik gabe betetzen ez badu, berari jarriko zaio 16.3.j) artikuluan jasotako arau-haustearen zigorra.
3. Arau-hausteak:
  - a) Aparkatzeko tiketean agertzen den gehienezko denbora pasatzea.
  - b) Ordenantza honetan adierazitako tiket edo txartelik gabe aparkatzea.
  - c) Errotazio handiko zonan berriz aparkatzea, aparkatzeko gehienezko denbora bukatu eta bi orduko epea pasatu gabe, Osakidetzako Osasun Zentroa inguratzen duen errotazio handiko zonan izan ezik. Zona horretan berriz aparkatzeko tartea 30 minutukoa izango da.
  - d) Tiket edo bereizgarri manipulatu, faltsu, baliogabetu edo desegokia erabiltzea.
  - e) Bereizgarrien titularrek ez betetzea helbide-aldaketa edo ibilgailuaren eskualdatzea jakinarazteko obligazioa.
  - f) Ordenantza honetan jasotako bereizgarria behar den moduan ez erabiltzea.
  - g) Bereizgarria emateko beharrezko den betebeharren bat ez betetzea, eta Udalari ez jakinaraztea (horretarako jarritako epean).
  - h) Bereizgarria jaso zuen ibilgailuaren jabetza eskualdatu ondoren ere, haren bereizgarria erabiltzea.
  - i) Ezintasunak dituzten pertsonentzako Europako Aparkaleku Txartelak edo, bestela, mugikortasun urriko pertsonentzako bereizgarria begi-bistan ez jartzea.
  - j) Arau-haustea egin duen gidari erantzulea ez identifikatzea, aurrez eskatuta ere.
  - k) Egoiliarrentzat gordetako gunean aparkatzea, zona **edo sektore** horretako bizilagunen bereizgarria eduki gabe.
  - l) Okerreko tarifaren tiketarekin aparkatzea.
  - m) Ordenantza honetan adierazitako beste edozein baldintza ez betetzea.

## 17. artikulua. Zigorrak eta arabide-neurriak

Arau-hausteak honakoekin bat etorritik zigortuko dira: 339/1990 Legegintzako Errege-dekretua, martxoaren 2koa, Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurutasunari buruzko Legearen testu artikulatua onartzeko dena, V. tituluan (5/1997 Legeak, martxoaren 24koak, aldatutakoa); 19/2001 Legea, abenduaren 19koa, 18/2009 Legea, azaroaren 23koa, eta legezko gainerako xedapen osagarrietan eta udal ordenantzetan erabakitakoak.

16.3 artikuluko a), b), c), e), f), g), h), i) eta j) puntuetan tipifikatutako arau-hausteak **120 eurorekin** zigortuko dira (kopuru hori berrikusi egingo da, eta, beharrezkoa bada, Alkatetzaren Dekretu bidez eguneratuko da). 16.3 artikuluko d) kasua **400 eurorekin** zigortuko da (kopuru hori berrikusi egingo da, eta, beharrezkoa bada, Alkatetzaren Dekretu bidez eguneratuko da) eta horretaz gain bereizgarria baliogabetu eta 2 urteko epea pasatu arte ez zaio berririk egingo. Horiek horrela izanda ere, ez da eragozpenik izango ondorengoak eskatzeko: ordenantzako tarifetan jarritako prezioak ordaintzea, baita premiamendu-bidea erabilita ere (Tasa eta Prezioei

buruzko apirilaren 13ko 8/1989 Legeko 27.6 artikularekin lotuta, abenduaren 28ko 39/1988 Legeak, Udal Ogasunak arautzekoak, 47.3 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz); eta sor daitezkeen beste tasak ere ordaintzea.

16.3 artikuluan tipifikatutako arau-hausteak trafiko eta aparkamenduen zerbitzu publikoa antolatu eta hobetzeko oztopo larriak dira, beraz, oker okupatutako espazioa berreskuratzeko, udal agintaritzak ibilgailu hori jasoko du, eta horretarako prestatutako gordailura eramango du, ezar daitekeen zigor ekonomikoa kontuan hartu gabe.

16.3 artikuluko kasuetan autoa jaso egingo da, udal agintaritzak denbora mugarekin aparkatzeko egokitutako lekuetan horretarako baimena ematen duen bereizgarririk gabe aparkatzen bada edo, udal ordenantzan ezarritakoarekin bat etorriz, ordaindutako denbora hirukoizten baldin bada.

**Trafikoaren zaintzaz arduratzen diren agintaritzak-agenteeak, legez jarritako kasuetan, ahalmena izango dute ondorengo kautelazko neurria hartzeko:** ibilgailuak bidetik kentzea eta gordetzeko izendatutako lekura eramatea.

Ibilgailua bide publikotik jasotzeko zerbitzuak eta ibilgailua aurreko atalean aipatutako gordailuan egoteak IBILGAILUAK BIDE PUBLIKOTIK JASO ETA ERAMATEKO ZERBITZUA EMATEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEKO UDAL ORDENANTZAN xedatutako tasak sorraraziko dituzte. Ibilgailua itzuli aurretik tasa horiek guztiak ordaindu beharko dira.

~~Ibilgailuaren aparkaldiak ordaindutako denbora hogeita hamar minututik behera gainditu duenean, erabiltzaileak salaketa baliogabetu ahal izango du. Horretarako, bigarren gaitze baimena eskuratu du, ordaindu ondoko, hogeita hamar minutuko aldi bakarrerako, eta hasieran baimendutako denborari gehituko zaio. Guztira eskuratutako denborak ezingo du gainditu dagokion zonarako ezarrita dagoen gehienezko aparkaldi muga.~~

Ordaindutako denbora hogeita hamar minututik gora gainditu denean, salaketa baliogabetzeko tiketa lortu ahal izango da, baldin eta ibilgailua jaso baino lehen egiten bada ordainketa. Ordainketa aurreratua parkimetroan bertan egingo da. **Salaketaren ordainketa aurreratua egiteko epea bi ordukoa izango da, aparkamendu-tiketean adierazitako ordua bukatzen denetik kontatzen hasita.** Ordainketa arautzen duen ordenantzan jarritako tarifa berezian adierazitako kopurua ordaindu beharko da.

Alkateak edo, hala badagokio, delegazio edo deskontzentrazio bidez ari den organoak onar dezake trafikoaren arloan egiten diren arau-hauste ohikoenen taula bat, bai eta zigor aplikagarriena ere. Dena den, taula horiek modulatu ahalko dira sortzen diren zirkunstantzien arabera.

## XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan xedatu gabeko kasuetan honakoak beteko dira: ZARAUZKO HIRI-BIDEETAKO ZIRKULAZIOAREN ETA ERABILERAREN ZENBAIT ALDERDI ARAUTZEKO ORDENANTZA (2004ko otsailaren 25ean egindako Udaltzarrean behin betiko onartua eta 2004ko martxoaren 5eko GAOn, 44 zenbakian, argitaratutakoa); eta aurreko ordenantzaren garapenerako araudia eta gainerako legeria aplikagarria.

Zerbitzu teknikoek txostena egin ondoren, **Alkatetzak edo, hala badagokio, delegazio edo deskontzentrazio bidez ari den organoak** salbuespenezko araubideak dituzten aparkaleku-bereizgarriak erabiliz aparkatzeko baldintzak aldatu ahal izango ditu, salbuespen moduan, egun jakin batzuetarako, trafikoarekin eta aparkalekuekin nahiz interes publikoko beste egoera batzuekin lotutako arazoak direla-eta. Horrelakoetan, beharrezko diren bitartekoak erabiliko ditu, erabiltzaile guztiek erabakiaren berri izan dezaten, eta hala jakinaraziko zaie herritarrei.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Ordenantza honek espresuki indargabetzen ditu honako hauek:



- Udaltzarrek 2005eko abenduaren 28an egindako bilkuran behin betiko onetsitako ZARAUZKO UDALERRIKO BIDE PUBLIKO JAKINETAN IBILGAILUEN APARKAMENDUA ARAUTZEKO ORDENANTZA (GAOn argitaratua, 2006ko urtarrilaren 18an, 12 zk.).
- Udaltzarrek 2007ko apirilaren 25ean egindako bilkuran onartutako aldaketa (GAOn argitaratua, 2007ko ekainaren 25ean, 124 zk.).

- Udalbatzarrak 2010eko uztailaren 28an egindako bilkuran onartutako aldaketa (GAOn argitaratua, 2010eko urriaren 20an, 201 zk.)

Indargabetuta geratzen dira, baita ere, aurreko paragrafoan aipatutako ordenantzak indarrean egon diren bitartean Alkatetzaren Dekretu bitartez egin diren aldaketak.

## I. ERANSKINA

### TAO ORDENANTZAK ARAUTUTAKO ZONAK (udako eta neguko planoak)



## II. ERANSKINA

AIA, GETARIA eta ZUMAIAko katastro-partzelen zerrenda, 11 b) artikuluaaren ondorioetarako

PARTZELA ZK./Nº parcela	UDALERRIA/ Municipio
6492	GETARIA
6493	ZUMAIA/GETARIA
6392	ZUMAIA
6391	ZUMAIA
6393	ZUMAIA
6491	AIA
6591	AIA
6691	AIA
6490	AIA
6590	AIA
6690	AIA
6489	AIA
6589	AIA
6689	AIA
6488	AIA
6588	AIA
6688	AIA
6587	AIA
6992	AIA
6991 (854 ZONA)	AIA
7091 (854 ZONA)	AIA
6990	AIA
6989	AIA
6889	AIA
6789	AIA
6788	AIA
6888	AIA

**9.- 10. ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA. BEHIN BETIKO ONESPENA.**

2020C2100005

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210429&punto=9>

Akordio-proposamena irakurri ondoren, udal taldeen iritzi trukaketarako tartea zabaldu da. Eztabaida amaituta, proposamena bozkatu dute, emaitza honekin:

Botoak alde:	11	9 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Botoak aurka	9	8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak
Abstentzioak:	-	

Beraz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

2021eko urtarrilaren 28an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea 10. Ordenantza Fiskalaren aldaketari (Trakzio mekanikozko ibilgailuak bide publikoetan aparkatzeagatik ordaindu beharrezko tasa).

Espedientea jendaurrean egon den epean bi idatzi aurkeztu dira.

Alegazioak aztertu ondoren, eta Antolakuntzako informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak, gehiengoz,

#### **ERABAKI DU:**

**Lehenengoa**.- Aurkeztu diren alegazioak ezestea.

**Bigarrena**.- Behin betiko onartzea hasiera batez Udalbatzarrak 2021eko urtarrilaren 28an onartutako 10. Ordenantza Fiskalean egindako aldaketa.

**Hirugarrena**.- Ordenantza Fiskalaren aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Hazienda Lokalak arautzerakoak, 16.4 artikuluan agintzen duena betetzeko, guztien jakinerako eta aipatutako aginduan aurre-ikusten diren gainontzeko ondorioetarako.

#### **10.- UDALERRIAN TAXI-BUS ZERBITZUA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK.**

2021U9920002

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210429&punto=10>

Udalerrian garraio publikoa sustatzeko proposamen bat da TAXI-BUS ZERBITZUA, herrigunetik kanpo dauden auzoko bizilagunei zerbitzua eman nahi diena, herritar horiei ere mugikortasuna errazteko asmoz. Gaur egungo autobus zerbitzuaren eragina herriko gunera mugatzen da. Inguruan dauden auzoetara zerbitzu honekin iristea ezinezkoa denez, TAXI-BUS ZERBITZUAK azken horren osagarri izan nahi du. Bere helburua da, baita, garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasuna duten eta/edo mugikortasuna mugatuta duten pertsonen laguntzea.



2008ko uztailaren 16an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak ZARAUZKO UDALAK ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEK DIRULAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA onartu zuen. TAXI-BUS ZERBITZUA bultzatzeko dirulaguntzen deialdia egin aurretik, beharrezkoa da ordenantza espezifiko bat onartzea, oinarri orokorrak eta deialdiaren oinarri espezifikoak arautzeko.

Bai Legean, bai UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORrean aurreikusitako dirulaguntzen modalitateen artetik, dirulaguntza izendun bat onartu behar da. Horrelako dirulaguntzetan aurreikusitakoaren arabera, lehendabizi dirulaguntzak emateko prozedura eta baldintzak arautzeko oinarriak onartu behar dira; dirulaguntzok banaka emango dira, eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskaerak jaso ahala eta aurrekontu baliabideen mugarekin.

Aurrekoa ikusita, eta Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak aho batez

### **ERABAKI DU:**

**Lehena.**- Zarauzko herrigunetik kanpo geratzen diren auzoetako bizilagunentzat eta desgaitasuna duten pertsonentzat 2021. urtean TAXI-BUS ZERBITZUA bultzatzeko DIRULAGUNTZEN oinarri arautzaileak onartzea.

**Bigarrena.**- Oinarriak eta deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

**Hirugarrena.**- Eskatutako informazioa DIRULAGUNTZEN DATU-BASE NAZIONALEAN (BDNS) erregistratzea, hark emandako bitarteko elektronikoen bidez, deialdiaren testuarekin, haren laburpenarekin eta datu egituratuekin batera.

Informazioa erregistratu ondoren, BDNSk Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren esku utziko du deialdiaren laburpena, argitara dezan. BDNSk deialdiari eman dion identifikazio-kodea agertu beharko da laburpenaren argitalpenean.

### **UDALERRIAN TAXI-BUS ZERBITZUA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN OINARRI ARAUTZAILEAK**

#### *1. oinarria. Dirulaguntzen xedea*

1.1. Udalerrri barruko garraio publikoa sustatzeko ekintza bat da, eta helburua du herrigunetik kanpo dauden auzoei garraio zerbitzua ematea eta bere bizilagunei mugikortasuna erraztea.

Zerbitzua erabili ahal izango dute eremu hauetako batean errolatuta dauden herritarrek: Zarauzko Udalerriko lurzoru urbanizaezinaren kalifikazioa duten eremuetan bizi direnek, eta Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorreko eremu hauetan errolatuta dauden herritarrek ere bai: 19 (Talaimendi), 24 (Errotaberri), 25 (Astierreka), 26 (Astazubi) eta 27 (Errotazar). Horretarako bi baldintza hauek bete beharko dira: batetik, autobus-geltokia beren ohiko etxebizitzetatik 500 metro baino gehiagora egotea, eta, bestetik, zerbitzuaren maiztasuna 70 minututik gorakoa izatea.

1.2. Herriko autobusak egiten duen ibilbidearen barruan garraio kolektiboa erabiltzeko zailtasuna duten pertsonen ere zerbitzu hau erabiltzeko aukera emango zaie, autobus zerbitzuak ezin dituenean bete bere mugikortasun beharrak. Kontzeptu horretan sartuko dira garraio publikoak erabiltzeko zailtasunak daudela ebazteko

baremoaren barruan, 1971/1999 Errege Dekretuaren 2. eranskineko A), B) edo C) letretan sartuta daudenak (abenduarien 23koa, ezgaitasun gradua aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedurari buruzkoa).

1.3. Lanegunetan, astelehenetik ostiralera, 7:00etatik 22:00etara bitartean egindako garraio zerbitzuetara mugatuko dira dirulaguntzok.

Zerbitzua eskatzeko ordutegia goizeko 9:00etatik arratsaldeko 18:00etara izango da, eta, deia, ahal dela, zerbitzua erabili aurreko egunean egingo da. Telefonoa: 943-13.19.52

1.4. Zerbitzuaren hasiera eta bukaera erabiltzaileak nahi duena izango da, betiere udalerrri barruan egiten bada; gainera, zerbitzu horrek ez du derrigorrez autobus-geltokian hasi edo bukatu beharrik izango.

## *2. oinarria. Onuradunen betebeharrak.*

Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrak 11. artikuluan xedatutakoaz gain (dirulaguntza baten onuradun izateko betekizun eta debeku orokorrak), laguntza hauen onuradun izango dira Zarauzko Udaleko taxi-lizentzia duten pertsonak.

Desgaitasuna duten pertsonentzat ibilgailu egokituak dituzten taxi-gidariak ere onuradun izan ahalko dira, baldin eta zerbitzua Zarauzko udalerrriaren barruan ematen baldin badute, eta oinarri hauetan jasotako baldintzetan. Aukera hori zabalduko da soil-soilik Zarauzko taxi-gidariak zerbitzu hori ematerik ez dutenean.

EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO UDAL ARAUDIAREN arabera, dirulaguntzaren onuradunak euskaraz egingo dio harrera zerbitzuaren erabiltzaileari, eta ondoren bezeroak hautatutako hizkuntzan jarraituko du (euskaraz edo gaztelaniaz).

## *3. oinarria. Eskaerak aurkezteko tokia eta modua*

3.1. Dirulaguntzen eskaera udaletxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan aurkeztuko da. Eskaerarekin batera, deialdian bertan zehaztuko den dokumentazioa aurkeztu beharko da.

3.2. Eskaeran edo eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan identifikazio-datuak falta badira, akatsak badaude edo osatu gabe badago, orduan, eskatzaileari eskatuko zaio akats hori zuzen dezala 10 eguneko epean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak – Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearenak – 68.1. artikuluan xedatutakoaren arabera. Eskatzaileak akatsa zuzentzen ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko da, horretarako ebazpena aipatutako legearen 21. artikuluan aurreikusitako moduan eman ondoren.

## *4. oinarria. Dirulaguntzak emateko prozedura*

Udalak bonu batzuk banatuko, laguntza hauek errazteko.

## *5. oinarria. Finantza-baliabideak.*

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak emateko finantza-baliabideak ondorengo aurrekontu-partidatik ordainduko dira, esleitutako diru-kopurua amaitu arte: 1. 0901.480.01.441.20 2021 (7448).

## *6. oinarria. Dirulaguntzen zenbatekoa eta balorazio-irizpideak*

- Dirulaguntzak emateko, bonu sistema erabiliko da. Interesdunek eskaera egingo dute deialdian jasotzen den baldintzetan, eta 10 bidaiak egiteko bonu bat jasoko dute dohainik. Tiket bakoitzak bi zati izango ditu. Zerbitzuaren ondoren, taxi-gidariak zati bat jasoko du, eta bidaiariak gorde egin beharko du beste zatia.
- Taxi-zerbitzua ematerakoan, erabiltzaileak egiaztagiria bat emango dio gidariari, eta egindako ibilbidea ordaindu egingo du (=autobusaren tarifa arruntaren balioa).
- Udalerrriaren barruan egindako taxi-zerbitzua 9,00 euroko prezioan aurreikusi da, eta udalerritik kanpo egindakoa 15,00 euroko prezioan. Horietatik 2,00 euro bere gain hartuko ditu taxi-gidariak.

- Udalak dagokion kopurua ordainduko dio taxi-zerbitzua eman duenari, emandako zerbitzuen justifikazioa aurkezten duenean: Zerbitzu bakoitzarentzat aurreikusitako prezioari kendu egingo zaio erabiltzaileak ordaindutako bidaiaren prezioa (=autobusaren tarifa arrunta) eta taxi-gidariak bere gain hartutako kopurua.

#### *7. oinarria. Bonuak eskuratzeko prozedura*

- Herriko autobusak egiten dituen ibilbideetatik kanpo geratzen diren eremuetan erroldatua egon beharko du bonu-eskatzaileak (1.1 atalean zehaztutakoaren arabera).
- Desgaitasuna edo mugikortasun mugatua duten pertsonak bonuak eskatu ahal izango dituzte, Zarautzen erroldatuta badaude eta 1.2 oinarrian adierazitako desgaitasun-portzentajea egiaztatzen badute.
- Herritar bakoitzak gehienez ere 14 bonu eskatu ahalko ditu, eta ezingo da bonurik eskatu aurreko bonua eskatu zenetik astebete pasatu arte.
- Mugikortasun Departamentuak begiratu egin beharko du ea bonu-eskatzaileak betetzen ote dituen bonua emateko baldintzak (oinarri hauetan jasotakoak).
- Baldintzak bete egiten dituela egiaztatutakoan, interesdunak Herritarren Arreta Zerbitzuan jasoko du bonua.

#### *8. oinarria. Dirulaguntzen ebazpenak*

Dirulaguntzak emateko edo ukatzeko ebazpenak Alkatetzaren eskumenekoak izango dira.

#### *9. oinarria. Onuradunen betebeharrak eta konpromisoak*

Dirulaguntzaren bat jasotzen duten interesdunek ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZEN ORDENANTZA OROKORreko 20. artikuluan eta oinarri hauetan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte.

#### *10. oinarria. Dirulaguntzen bateragarritasuna*

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira beste herri administrazioek edota erakunde publiko nahiz pribatuek, estatukoek, Europar Batasunakoek edo nazioartekoek xede berarekin emandako dirulaguntza, laguntza, sarrera edo baliabideekin, baldin jasotako guztiarekin diruz lagundutako jardueraren kostua gainditzen ez bada, eta bildutako beste dirulaguntzen oinarri arautzaileek horri buruz agindu dezaketinari utzi gabe.

#### *11. oinarria. Dirulaguntzen ordainketa*

11.1. Garraio zerbitzua eman duen pertsonak eskaera eta dokumentazio osagarria aurkezten ditenean ordainduko da dirulaguntza.

11.2. Eskaerak hilero aurkeztuko dira, zerbitzua eman eta hurrengo hilabeteko lehenengo astean. Salbuespenez, 2021eko bonuak aldatzeko azken eguna 2022ko urtarrilaren 31 izango da.

#### *12. oinarria. Baldintzak ez betetzea eta dirulaguntza itzultzea.*

Oinarri hauetan eta gainerako araudi aplikagarrian ezarritako baldintzaren bat betetzen ez badu erakunde onuradunak, dirulaguntza jasotzeko eskubide osoaren edo partzialaren galera adieraziko da, eta gainera derrigorrez itzuli beharko du jasotako diru-kopurua (osoa edo zati bat) eta horri dagozkion berandutze-interesak. Dirulaguntzak emateko eskumena duen organoak hartuko du horri buruzko erabakia.

#### *13. oinarria. Araubide juridikoa*

Dirulaguntzok honako hauek arautuko dituzte: oinarri arautzaile hauek, ZARAUZKO UDALEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKORRA (2008ko uztailaren 22ko GAOn argitaratutakoa); azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa; eta horren garapeneko Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutakoa.



**11.- KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA. HASIERAKO ONESPENA: 2021-KALD-00005-00 zk. (Kreditu gehigarriak). Dirulaguntza Zarautz Arraun Elkartea**

2021-KALD-00005-00

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210429&punto=11>

Herritarrak udal informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak aho batez

**ERABAKI DU:**

**Lehena.**- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2021-KALD-000005-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

**GASTUAK**

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	20.000,00
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>20.000,00</b>

**FINANTZAKETA**

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	20.000,00
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>		<b>20.000,00</b>

**Bigarrena.**- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

**12.- KREDITU ALDAKETARAKO ESPEDIENTEA. HASIERAKO ONESPENA: 2021-KALD-00004-00 zk. (Kreditu gehigarriak). Santa Klara Komentua.**

2021-KALD-00004-00

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210429&punto=12>

Antolakuntzako udal informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak aho batez

## ERABAKI DU:

**Lehena.**- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espediente, kreditu gehigarrien modalitatekoa, 2021-KALD-000004-00 zenbakiduna, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

### GASTUAK

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
6	INBERTSIO ERREALAK	1.282.355,75
<b>KREDITU GEHIGARRIAK GUZTIRA</b>		<b>1.282.355,75</b>

### FINANTZAKETA

Kapitulua	Izena	Zenbatekoa
8 (SARRERAK)	FINANTZA AKTIBOAK	1.282.355,75
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>		<b>1.282.355,75</b>

**Bigarrena.**- Jendaurrean ikusgai jartzea hamabost egunez, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin betikotzat joko da. Espediente honek aurrekontua onartzeko ezarritako gainerako tramiteak jarraitu beharko ditu.

### 13.- ZARAUZKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN ALDAKETA: 7 AREAKO -OD AZKEN PORTU- LANPARDO PARTZELA, ETA 12-3 AREA -OD KORTAZAR-. HASIERAKO ONESPENA.

2018H7000013

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210429&punto=13>

Akordio-proposamena irakurri ondoren, udal taldeen iritzi trukaketarako tartea zabaldu da. Eztabaida amaituta, proposamena bozkatu dute, emaitza honekin:

Botoak alde:	19	8 EAJ-PNV, 8 EH Bildu, 2 PSE-EE
Botoak aurka	-	
Abstentzioak:	1	1 Podemos-Equo Berdeak

Ondorioz eta adierazitako gehiengoarekin, Udaltzarrak hau erabaki du:

2018ko azaroaren 26an, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak eta Zarauzko Udalak lankidetzeta-hitzarmena sinatu zuten Lanpardo kalea 1eko partzelan (7 area –OD Azken Portu–) alokairuko etxebizitza sozialak eraikitzeko.

Hitzarmenaren arabera, Udalak konpromisoa hartu zuen plan orokorra

aldatzeko dokumentua idazteko. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 105 artikulua xedatutakoa betetzeko, beharrezkoa jo zuten horrekin batera 12-3 areako Kortazar partzelako kalifikazioa aldatzea.

Udalak Izaskun Larzabal arkitektoari (EZKETA SLP) adjudikatu zion plan orokorraren aldatzea idazteko kontratua.

Espedienteari ingurumen-ebaluazio estrategiko sinplifikatua egin zitzaion. Ingurumen organoak, 2021eko martxoaren 2ko ebazpenaren bidez, derrigorrezko ingurumen-txosten estrategikoa egin zuen.

Halaber, aldeko txostenak egin dituzte Kostaldeko eta Itsasoko Zuzendaritza Nagusiak (Kortazar partzela Kostaldee buruzko Legean araututa dagoen eragin gunean dago) eta Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiak (Hondarribia-Donostia aireportuko zortasun aeronautikoko gunean dago Zarautz).

Talde egileak hasierako onespenerako dokumentu batekina aurkeztu zuen. Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak jakinarazi zuen bat zetorrela Udalak emandako irizpideekin.

Plan orokorra aldatzeko proposamenak antolamendu xehatua dauka. Honakoak dira bere helburuak:

- Lanpardo partzelan etxebizitza babestuak (25 inguru) eta garajeak eraikitzea.
- Kortazar partzelan ekipamendu publikoa eta garajeak eraikitzea.

Espedientea Lurraldeko informazio-batzordean aztertu eta eztabaidatu ondoren, eta, 19 zinegotzien aldeko botoarekin eta, beraz, legezko gehiengo osoaren "quorum"arekin, Udalbatzarrak

## ERABAKI DU

**Lehenengoa.-** Hasierako onespena ematea Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren aldatetari, 7 areako -OD Azken Portu- Lanpardo partzelari, eta 12-3 areari -OD Kortazar- dagokionez.

Onartutako dokumentuak 2021eko apirileko data dauka.

**Bigarrena.-** Espedientea jendaurrean jartzea, interesdun orok bidezkoak iruditzen zaizkion alegazioak aurkeztu ahal izan ditzan. Jendaurreko epea 45 egunekoa izango da, eta erakustaldiaren izapidea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta probintzian gehien zabaltzen den egunkarian jakinaraziko da. Hasierako onspeneko akordioa eta planeamenduko dokumentu osoa Udalaren web orrian jarriko dira ikusgai.

Halaber, aginduzko txostenak eskatuko dira, dagokion sektoreko legeriarekin bat etorritik.

**Hirugarrena.-** Udal Plangintzako Aholku Batzordeari deia egingo zaio, plan orokorra aldatzeko proposamenari buruzko irizpena eman dezan.

#### 14.- PODEMOS-EQUO BERDEAK UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

##### – Kalean dauden pertsonen eskubideak defendatzeko mozioa.

2021O0010004

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210429&punto=14>

Segidan, PODEMOS-EQUO BERDEAK udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri du **Delgado** andreak. Hona hemen testua:

#### KALEAN DAUDEN PERTSONEN ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO MOZIOA

##### ZIOEN AZALPENA

**Abenduaren 5eko 12/2008 Gizarte Zerbitzuen Euskal Legeak** Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuetarako eskubidea bermatzen du, eskubide unibertsal eta subjektibo gisa.

**Urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, gizarte zerbitzuen Zorroari buruzkoak,** prestazio eta zerbitzu horiek zeintzuk diren garatzen du, eta, zehazki, 33.2 artikuluan, **udal-eskumeneko prestazio gisa honako hauek** ezartzen ditu, besteak beste:

1.7. Eguneko arreta-zerbitzuak.

1.8. Gaueko harrera-zerbitzuak

**2018-2021 aldirako Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategiak** izaera multidimentsionala izateaz gain, erakunde arteko izaera nabarmena du, bizitegi-bazterketa larriko egoerak murrizteko eta prebenitzeko modu bakarra baita. Horren esparruan egindako diagnostikoak ohartarazten du etxerik gabeko pertsonen arreta emateko

baliabide gehienak bigarren mailako arretaren eremuan daudela (foru aldundien kontura), eta EAEko udalak beren gain hartzen ari direla etxerik gabeko pertsonen zuzenean bideratutako gizarte-zerbitzuen gastuaren %27 (5,2 euro biztanleko), gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonentzako bizitokiak eta egoitza-zentroak, gizarteratzeko eta gizarte-premietarako eguneko eta gaueko arreta-zentroak, eta gizarte jantokiak.

Era berean, **Arartekoak, ekainaren 5eko 2/2020 Gomendio Orokorrean,** Etxerik Gabeko Pertsonentzako Euskal Estrategiaren jarraibideak betetzeko eskatu zien euskal administrazio publikoei, kalean bizi diren pertsonen bizitoki egokia eta gizarte-arreta izaten jarrai zezaten.

Kalean dauden pertsonekin lan egiten duten **Hirugarren Sektoreko gizarte-mugimenduek** eta erakundeek salatu dute egoitza-baliabide nahikorik ez daudela, hala nola eguneko zentro eta gaueko aterpetxe nahikorik, EAEn premia-egoeran dauden pertsona guztiei arreta emateko. Udalerriak dira egoitza-zerbitzu horiek emateko betebeharraren titularrak, eta ez dira nahikoak izaten ari gizarte-erakundeek adierazitako premiei aurre egiteko. EAEn bizitegi-bazterketa larrian dauden pertsonen egoerari buruzko 2018ko IV. Azterlanaren datuen arabera, SIIS Dokumentazio eta Ikerketa Zentroak nabarmen egin du gora 2012tik 2018ra (argitaratutako azken azterlana), eta ia bikoiztu egin da 2016 eta 2018 arteko pertsonen kopurua (430 pertsona zeuden egoera horretan urte horretan EAeko 7 udalerrri parte-hartzaileetan).

**COVID 19aren pandemiak** eta horren ondoriozko osasun, gizarte eta ekonomia krisiak gizarteko sektore guztietan izan du eragina, eta, bereziki, pertsona ahulengan, baita bizitzeko tokirik ez dutenengan. Erakundeok errealitate gogor horri aurre egin behar diogu, inoiz baino kemen handiagorekin, baita behar bezala erantzun ere aurrean dugun erronkari.

**Ondorioz, Podemos-Equo Berdeak Udal Taldeak honako erabaki hau hartzea proposatzen dio Osoko Bilkurari:**

ERABAKIA:

- 1.- **Eusko Jaurlaritza** PREMIATZEA Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategiko berri bat egin dezala, iraungitako 2016-2019 planari jarraipena emateko.
- 2.- **Gipuzkoako Foru Aldundiari** eskatzea etxegabetasunari buruzko diagnostiko bat egin dezala eta bere baliabideak eta prestazioak egokitu ditzala lurraldearen errealitatera.
- 3.- **Tokiko Gobernu Taldea** PREMIATZEA gaur egun gizarte zerbitzuen zorro dekretuko zerbitzuen hedapen eraginkorrari buruzko informazioa eman dezala, eta hilabeteko epean zabaltzeke dauden zerbitzuak garatzeko plangintza-egutegi bat aurkezteko konpromisoa har dezala, beharrezkoak diren baliabideak esleituz eta, hala badagokio, aurrekontu-partida zabalduz horretarako.
- 4.- **Tokiko gobernu taldea** PREMIATZEA lehen aipatutako gizarte-zerbitzuen erabiltzaileekin ebaluazio parte-hartzailea egin dezala, gehienez ere urtebeteko epean. Ebaluazio hori urteko gizarte-ekintzako memoriako datu kuantitatiboekin osatuko da, eta kalitatea, erabiltzaileen gogobetetze-maila eta emandako arretaren eraginkortasuna ebaluatuko dira. Eraginkortasuntzat joko dira eskura dauden baliabideen nahikotasuna, erantzun gabeko eskaerak eta erantzundako eskaeren eraginkortasuna, betiere eskura dauden baliabideekin.
- 5.- **Tokiko Gobernu Taldea** PREMIATZEA erroldatze soziala bultzatzeko irizpide argiak eta ekintza zuzena ezar ditzala.
- 6.- Zarauzko Udaleko Osoko Bilkurak, azkenik, gure hiriko **erakundeek eta gizarte-kolektiboek** egiten duten lana aintzat hartzen du, eta elkarrekin lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

Hizketaldiak hasi eta eztabaidan ari direla, **Delgado** andreak aldatu egin du aurkeztutako proposamenaren testua: izenburua eta seigarren puntua mantendu egin ditu, eta beste puntu bat erantsi.

Ondorioz, PODEMOS-EQUO BERDEAK udal taldearen proposamena honela idatzita geratzen da:

#### **KALEAN DAUDEN PERTSONEN ESKUBIDEAK DEFENDATZEKO MOZIOA**

**Zarauzko Podemos Equo-Berdeak udal taldeak honako erabaki hau hartzea proposatzen dio Osoko Bilkurari:**

ERABAKIA:

1.- Zarauzko Udaleko gobernu-taldeak konpromisoa hartzen du eskualde mailan bilera bat deitzeko eta egiteko, arazoari irtenbide bat emateko.

2.- Zarauzko Udaleko Osoko Bilkurak, azkenik, gure hiriko **erakundeek eta gizarte-kolektiboek** egiten duten lana aintzat hartzen du, eta elkarrekin lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

Aurreko proposamena bozkatu ondoren, aho batez onartu dute bilkurara bertaratutakoek.

#### **15.- PSE-EE UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:**

**– Fernando Buesa Fundazioa, Gogoan por una memoria digna eta Elkarbizi elkarteek, prestatutako mozioa aurkeztuz: biktimagileen lekua gure plazetan eta herrietan.**

2021O0010005

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210429&punto=15>

Segidan, PSE-EE udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri du **Vazquez** andreak. Hona hemen testua:

#### **Biktimagileen lekua gure plazetan eta herrietan ZIOA**

Indarkeriaren inpaktu sozialari heltzeko gai zerrenda handi baten ganean lan egin behar da, indarkeriak ez baitzuen soilik mehatxuaren eta heriotzaren une zehatz hartan eragin. Indarkeriak eta haren ondorioek hainbat gauza suntsitu zituzten eta, horregatik, denbora asko beharko da terrorismoak hain sakon markatutako gizartea normalizatzeko.

Bizikidetzaren bidean onartezina da hainbat ekitaldi publiko, horma-irudi, pintada eta pankarten bidez presoak omentzea eta goraiatzea, uda honetan hainbat herritan ikusi den bezala.

Bakearen eta bizikidetzaren erronkak denbora, borondatea eta lan etiko handia eskatzen ditu gutxienez. Eta indarkeriaren nahitaezko deslegitimazio soziala

bateraezina da hiltzea edo horretan laguntzea erabaki zuen norbaiten irudia eta ibilbidea omentzen edo goraiatzuten duten adierazpen publikoekin.

Gutziz legitimoa da urruntzeko espetxe-politika kritikatzeko eta edozein presoren hurbilketa aldarrikatzeko. Baina oso desberdina da, gure herrietako martiriak balira bezala, biktimen eta gizartearen bizikidetzaren aurkako atentatu larriak egin zituztenak modu akritikoan tratatzea.

Gure ustez, gure bizikidetzaren indarra urte batzuk barru neurtuko da, baina badakigu gaur bertan ez dagoela gerorako uzteko zereginik. Biktimagileak aintzat hartzeak eta espazio publikoan egoteak agerian uzten du gure gizartearen zati batean gabezia handia dagoela, hau da, oraindik ez duela onartu indarkeriaren deslegitimazio soziala.

Esan dugun bezala, uda honetan hainbat herritan kale nagusiak presoen inguruko pankartekin bete dira eta, horrela, espazio itogarriak sortu dira gizartearen gehiengoarentzat eta, are gehiago, biktimetzat.

Zentzu horretan, komeni da ez gutxiestea oraindik ere omenaldi horiek egoteak oroimen eta etika publikoan duen ondorio suntsitzailea. Zeren eta, halakoak normalizatuz gero, hurrengo belaunaldiei mezu okerra bidal baikeniezaieke; izan ere, ekintza horien bidez, zalantzan jartzen ez den indarkerian parte hartzeagatik goraiatzuten den jende eskuzabalaren irudia helarazten zaigu, haatik indarkeria batez ere trauma bat denean.

Atentatuen erlatibizazioari edo nostalgia kriminalari atea irekitzea bide txarra da bizikidetzaren indartzeko; izan ere, armak lurperatu ondoren, gauzarik premiazkoenetako bat gizartearen zati handi batean indarkeriaren inguruan eraikitako epika deuseztatzea da.

Zalantzarik gabe, auzi hau ez da bide penaletik konpontzen, ez da hori bere eremua. Aitzitik, hausnarketarako eta indarkeriari zilegitasuna kentzeko espazioak behar dira. Horrelako ekitaldiak antolatzen jarraitzen dutenei eta ETaren tren berean joan direnei dagokie zeregin hori. Massimo Carlotto Lotta Continuako kidearen hitzetan esanda, "krimenarekin harreman erromantiko-errebeldia izan zuten" haiei.

Benetako bizikidetzaren eraikitzen da biktimagileak heroitzat hartzen ez diren agertoki batean oinarrituta. Gaur egun herri askotako espazio publikoan oraindik ere desoreka handia dago erasotzaileen (biktimagileen) eta biktimen presentziaren artean, eta horrek espazio komunaren eta publikoaren erabilerari buruzko hausnarketa merezi du (frontoiak, kale nagusiak, etab.).

Bakeak bakearen aldeko jarrerak eskatzen ditu, eta jarrera horiek etengabeak eta iraunkorrak izan behar dute. Ezin da bizikidetzaren indartu krimenen zigorgabetasun faltsuaren aldeko apustua egiten den bitartean, "Denok etxera", "Presoak kalera", "Free them all" edo "maite zaituztegu" bezalako mezu engainagarriak erabiltzen baitira.

Bizikidetzaren eta indarkeriaren deslegitimazioa indartuko dituzten balio adiskidetzazko proiektatzea bateraezina da laudoriozko ekintza horiekin, non berriz ere mespretxatzen den omentzen direnek biktimei eragindako mina, ekintza horiek gure gizartearen oinarri etikoak ere zalantzan jartzen baitituzte.

Armen isiltasunak soinu-efektu nabarmena du; bertan garbiago entzuten da biktimak batzuetan jasan izan duten mespretxua. Gaur egun, ordea, gauzak beste era batera egiteko betebeharrak historiko eta etikoa dugu. ETAREN ondoko gizarte berrian ez dago biktimenganako umiliazio gehiagorako lekurik. Horretan ezin dugu iraganaren preso izaten jarraitu, gizarte gisa aurrera egiteko espazio guztietan zabaldu behar dugulako indarkeriaren deslegitimazioaren kultura.

Bizikidetzaren osasuntsua elementu askoren inbrikazioaren gainean eraikitzen da eta, zalantzarik gabe, funtsezkoa da kontuan hartzea sortutako biktimek, jasandako indarkeriaren jatorria edozein izanda ere, egia eta justizia izateko eskubidea dutela. Horrez gain, kontuan izan behar da bizikidetzaren espazio komunean eraikitzen dela, eguneroko bizitzan, hiri-paisaia, indarkeria jasan zutenekiko errespetutik abiatuta eta inolako ñabardurarik gabe, ez bada xede batean ikusi zirenen minarekiko hurbiltasuna. Horregatik, presoek egiten zaizkien omenaldiek, hain zuzen ere ETAKIDE izateagatik egindakoek, gure bizikidetzaren kalitatea hondatzen dute, eguneroko enpatia eta afektu ariketa batean oinarritu behar delako bizikidetzaren hori.

Oroimenerako betebeharrak etika eta biktimak gure jardunaren erdigunean jartzea eskatzen du. Horrela bakarrik lortuko dugu gizarte kohesionatuagoa, indarkeriaren drama gainditzeko gai dena. Gaur egun badakigu horrelako kontuak baztertzeko beti izaten dela ahanzturaren atarikoak. Horregatik eskatzen dugu

1. Presoek egindako omenaldi publikoak amaitzea.
- 2.- Udalek bermatzea beren udalerrietako espazio publikoak bizikidetzaren-eremu izango direla, ETAKIDEAK idealizatzen dituzten neuririk gabeak eta ez daudela ETAKO presoek ikonografiak beteta
- 3.- Memoria demokratikoaren, bizikidetzaren eta indarkeriaren deslegitimazioaren balioak indartzeko tokiko guneak eta horma-irudiak bultzatzeko udal-foroak eratzea.

Alkate jaunak bilkutatik kanporatu du PODEMOS-EQUO BERDEAK udal taldeko bozeramaile **Delgado** andrea, **Vazquez** andrea proposamena irakurtzen ari zen bitartean argazki bat atera duelako, TBko kamerari erakutsiz, non Felipe Gonzalez azaltzen den kartzelako atean Vera eta Barrionuevo agurtzen. Izan ere, hori egitea debekatuta dago Zarauzko Erregelamendu Organikoaren 44-10 artikuluan.

Proposamenaren eztabaidarekin jarraitu dute, eta bozkatu baino lehen, aretotik eta konexio telematikotik irten dira EH-BILDU udal taldeko **Murua, Arozena, Landa, Etxaburu, Goikoetxea eta Illarramendi** zinegotzi jaun-andreak.

Hizketaldiak bukatu ondoren, aurkeztutako proposamena bozkatu dute. Hona hemen emaitza:

Aldeko botoak	13	9 EAJ-PNV, 2 EH Bildu, 2 PSE-EE
Kontrako botoak	-	
Abstentzioak	-	



Ondorioz, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki du PSE-EE udal taldeak aurkeztutako mozio ONARTZEA.

Aurreko puntua bukatuta, berriz ere bilkuran sartu dira EH-BILDU udal taldeko **Murua, Arozena, Landa, Etxaburu, Goikoetxea eta Illarramendi** zinegotzi jaun-andreak.

#### 16.- ESKARI-GALDERAK.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20210429&punto=16>

Gai-zerrendako puntu honetan, **alkate** jaunak hainbat kontu argitu ditu gai-zerrendako 13. puntuari buruz: batetik, R9 partzelari buruz dauden aurreikuspenak, eta, bestetik, akordio batera iritsi direla partzelaren % 2,3aren jabearekin, zati hori eskuratzeko eta partzelaren jabetzaren % 100 eskuratzeko.

Horrez gain, adierazi du beste bi negoziazio daudela martxan: Gaztetxea partzela horretan birkokatze, tramitazioan; eta Eusko Jaurlaritzarekin egiten ari diren negoziazioak, partzela horretan alokairuko etxebizitzak eraikitze.

Eta aztertzeke besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, gaueko hamarrak eta hogeita hamarreen; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.